

SERA

Bart Kingma

Itzultzailea: Juan Mari Mendizabal Sarasua



bestehitzak
||| |

otherwords
||| |

Azaleko argazkia: Bart Kingma

1.

Aretora sartzean gustatu egin zaio giroa. Garbi dago arratseko ikuskizuna hasi besterik ez dela egin. Gaztetxo batzuk balantzaka ari dira dagoeneko, eskarmentu gehiagoko ikusleek berriketan dihardute taldetan, puntu gorena oraindik iritsi ez dela jakitun. Ez dute interes handirik jotzen ari den taldean. Ontziola handiko akustika negargarria da, baina zorionez horrek mozorrotu egiten du hirukotearen kalitate eskasa. Sera-k ingurura begiratu du. Kontzertuzaleak berdinak dira nonahi. Bizarrak, tatuajeak, arropa bakero eta larru ugari, forma eta tamaina guztietako belarritakoak: beharbada sudur-eraztun eta plastiko beltzeko belarritako gehixeago bere herrialdean baino.

Aretoaren alde luzean dago barra. Garagardoa edontzi zilindriko zabaletan zerbitzatzen dute. Baina hori Euskal Herria osoan ikusi du Serak, eta ohituta dago honezkero.

-Oporretan? -galdetu dio barrarako ilaran dagoen mutil batek.

Apur bat deseroso sentitzen da beti, harrapatuta bezala, besteek berehala kanpoko dela hautematen diotenean. Atsegina da, ordea, mutilaren begirada gaztainkara argia, eta leuna du ahotsa.

-Horrelako zerbait. Opor lanpetuak, edo.

-Zertan egiten duzu lan?

-Kantaria naiz.

Mutilari argitu egin zaio aurpegia. Musikariak gustuko dituela esan du. Berak ez duela musika-tresnarik jotzen, zoritxarrez. Hala ere, musikari asko topatzen dituela bere lanean.

Serak ikusi du horretaz harro dagoela mutila. Zertan lan egiten duen galdetzea beste erremediarik ez zaio geratu.

Gaurkoan boluntario dabilela erantzun dio hark, kontzertua bere herrian delako, baina normalean *roadie* moduan aritzen dela inguruko mota guztietako taldeentzat. Hartara, bazter haietan gertatzen diren kontzertu eta jaialdi ia guztietan egoten dela. Behin batean frantziar emakume kantari bat ezagutu zuela, Seraren nolabaiteko antza zuena.

Normalean, Serak gorrotatu izaten du bere bizitzaren historia minutu batzuetan kontzentratu nahi izaten duen jendea, baina mutil honek bere xarma dauka, ez baitzaio axola bere kalakak berrogeitaka urteko emakume batengan inolako zirrarak pizten ez duela ikustea. Baina agian bere buruarengan kontzentratuegi dago emakumearekin aukerarik ez duela konturatzeko. Serari samurgarria iruditu zaio. Erne ibili behar du mutilari irribarre gehiegirik ez egiteko. Hemezortzi urte izango dituela atera du, ez gehiago. Galdera gehiagorik ez egitea erabaki du, ea mutila nola moldatzen den. Oraindik ez du lortu zerbitzarien arreta erakartzea. Mutilak, ordea, erdietsi du bi garagardo eskatzea.

-Gaur kantatu behar al duzu? -galdetu dio mutilak.

-Gaur? Ez, ez.

-Eta hemen zauden bitartean?

Bi baso garagardo agertu dira gaztearen aurrean. Bi edari-fitxa ipini ditu haien alboan, ia erori direnak barra bustiaren gainetik irristan.

Serak burua astindu du. Ez, ez daukala pentsatuta. Entzulerik ez daukala oraingoz, eta horren bila ari dela. Baina ez begiratu diezaioten, berriro ere bere burua aurkitzeko baizik. Ea horrek laguntzen dion. Une honetan ez dauka esateko askorik azken horretaz, bidenabar.

-Hau gustatzen? -Garagardo bat eskaini dio mutilak-. Bide batez, Ibon naiz.

-Sera. Mila esker. Bai, gustatzen zait.

Erreparorik gabe begiratu dio mutilari, ahalik eta lañoen, baina probokatzaille gertatu gabe, txorakeriarik onartzen ez duela jakin dezan. Mutilak ez du amore eman, begirada alaia itzuli dio, haren begi gaztainkaretan ez da aldaketarik izan.

-Niri ere bai. Euskal Herria paradisua bezalakoa da. Beste nonbait nagoenean, beti egoten naiz hona itzultzeko irrikatzen.

-Bai, hori gertatzen da paradisuarekin -esan du Serak konplizitatezko irribarre batekin-. Zure irudimenean baino ez dela existitzen. Paradisua atzean utzi duzunean edo aurrean dagoenean soilik izaten da paradisua. -Mutilak jakituria hori nondik datorkion ez galdetzea espero du.

Ibonek baiezko keinua egin du, ulertuz bezala. Gero mahukatik tira egin dio. Indar gehixorekin; Serak aurre egiteko tentaldia izan du. Mutila konturatu egin da, mahuka laga eta emakumearen deserosotasuna leundu du begirada batez; gero aretoko albo batera egin du. Serak jarraitu egin dio, esaneko.

-Begira -esan du Ibonek badiara ematen duen ate ireki batera iristean. Eguna itzaliz doa apurka-apurka.

Serak begiratu bat egin du. Arrantzaleak arroketa beren kanaberekin, portuko pilotuaren ontzia itsaso irekira irteten, irrati antena labarretan gora, baliza argizatua itsas hesiaren muturrean. Piztu berria, inondik ere.

-Erreparatu itsas hesiko testuari -zehaztu du Ibonek.

Begira jarri da Sera. Letra handi zuriak porlanean idatzita. «Presoak etxera - Amnistia». Azken hitza bakarrik ulertu du.

-Esan nahi du euskal preso guztiek etxera itzuli behar dutela -esan du Ibonek-. Espainiar gobernuaren politika da terrorismoa dela-eta atxilotuak izan diren euskal herritar guztiak Euskal Herritik ahalik eta urrunen dauden espetxeetara eramatea. Giltzapean daude Andaluzian, Extremaduran, Murtzian.

Erokeria da, noski. Zenbat eta urrunago egon, gehiago ikusten dute herri hau paradisu gisa, sendoagoa bihurtzen da haien euskal identitatea. Askoz hobea izango litzateke haiek hona ekartzea. Hartara, zaindu ahal izango genituzke, eta tentsio horiek leundu.

-Baina terroristak dira, ez?

Mutilak ezker-eskuin astindu du burua. Serak ez daki nola interpretatu haren erreakzioa: ez dago ados berarekin, edo ez du gogoko bere galderak agerian uzten duen ezjakintasun maila? Mutilak isilik darrai. Serak itsas hesira begiratu du. Bikote adindu bat pasieran doa itsas hesian barrena, balizarantz. Argi gorria dago piztuta. Poliesterrezko bi arrantza txalupa kairatu dira.

Serak bira egin du. Ibon ez dago. Ontziola ohia jendez nahiko beteta dago orain. Dagoeneko hasia da kontzertu nagusia. Txiki & Arrakastak bukatu berri dute beren lehen kantua. Tira, horiek soinu proba mozorrotuak besterik ez dira izaten gehienetan. Txiki bere hirukotearen aurrean dago, kankailu. Tipo handikotea, betaurreko karratuak eta bizar beltza, zurezko ale hori eta urdinez apaindua. Hala ere, Serari gustatu egin zaio haren ahotsa, bat egiten baitu haren bizarrarekin eta gitarra jotzeko moduarekin. Laurogeita hamarreko hamarkada dakarkio gogora, tokiko banda guztiak ahalegintzen zirenean hurrengo Pearl Jam, Nirvana, Bush, Soundgarden edo Green Day izaten. Beti izan du gogoko soinu ilun hori. Litekeena da Txikik eta haren taldeak ere garai hartan hastea: denek daukate berrogeitik gora urte, baxu-jotzaileak izan ezik. Gitarra-jotzailea oraindik sartzen da larruzko bere praketan, eta bateria-jotzaileak seguru asko aspaldi utzi zion saiatzeari. Serak ez ditu hitzak ulertzen, baina serioak ematen dute. Entzuleek batera abestu dituzte kantu gehienak. Ezagutu duen abesti bakarra izan da Leonard Cohenen *The Partisanen* bertsio landugabe bat. Txalo batzuk jo ditu, eta ingurura begiratzuz ikusi du kantuak hunkitu egin dituela bertaratuak.

Hamar metro ezkerretara Ibon ezagutu du. Irribarre egin dio, arretaz. Hark irribarrea itzuli dio eta hurbildu egin zaio. Serak hurbiltzen utzi dio.

-Ba al dakizu zer alde dagoen partisano baten eta terrorista baten artean? -galdetu dio Ibonek.

Serak soinak goratu ditu.

-Mezulariak erabakitzen du. Ez bazaitu gogoko, terrorista deitzen dizu. Haren laguna bazara, partisano bat zara.

Begiratu kriptiko bat zuzendu dio. Serak ez daki nola erantzun.

-Eta zu zer zara? -galdetu dio.

Ibonek batera eta bestera so egin du.

-Hemen denak denetarikoak dira -esan du-. Terrorista, partisano, biktima, erruduna. Edo halako baten seme-alaba.

-Orduan terrorista baten semea al zara? Edo partisano batena? Edo...?

-Haien guztien semea naiz ni.

-Zer esan nahi duzu?

Ibonek ez du erantzun.

-Bihar arratserako planik bai? -galdetu du.

Ez, Serak ez dauka planik.

Ibonek poltsikotik sarrera txartel bat atera eta eman egin dio.

-Tori. Baiona, edo Bayonne, mugatik beste aldera. Bihar bertso jaialdi bat izango da han. Ba al dakizu zer den hori?

Bai, Serak badaki. Youtuben ikusiak ditu herri honetan hain zabalduta dagoen arte molde horren bideoak. Bertsolariak hitzak inprobisatu behar dituzte bertan ematen zaizkien argibideei jarraituz. Berez asmatu behar dute kantu bat, eta abestu.

-Bertan izango al zara? -galdetu du Serak.

-Bai, baina lanean. -Irribarre labur bat eskaini dio-. Horregatik eman dizut nire txartela.

2.

Kanpotik, eraikinak itxura zaharkitu samarra zuen, baina barnealdean Baionako kiroldegi handia goxoa eta beroa da. Serak kalkulatu du gutxienez bost mila lagun daudela harmaila eta eserleketan. Ikusminezko giro alaia da nagusi. Sei aulki huts, atril bat eta telebistarako argiztapena ageri dira eszenatokian. Kamera batzuk instalatu dituzte aretoan, zuzeneko emanaldia transmititzeko. Apaindura gehiagorik ez dago, baina Beyoncé kantatzera balihoa bezalako ikusmina agertzen du jendeak. Teknikariak, jeansak eta polo beltzak soinean, batera eta bestera dabilta. Ibon ez du inon ikusi.

Txartelean agertzen den eserlekura abiatu da: laugarren ilara, 23. eserlekua. Jendearen artean balantzaka, jarlekua aurkitu du, neska baten ondoan. Edo emakume gaztea ote da? Hogeitaz izan litzake, edo berdin-berdin hogeita hamabost. Haren aurpegia oso leuna da, zimur zein oreztarik gabea, itxuraz. Begi gaztaintara txiki baina ederrak ditu. Motz darama ile beltza, baina -deigarriena- mondriandar ereduko estiloan apaindua, arrasean moztua motibo zirkular eta karratuak eratuz, eta xerlo luze mehe gutxi batzuk burutik dilindan. Serak ez luke jakingo berehalakoan esaten atsegin duen edo ez, baina, haren gorputz argal eta hazpegi delikatuarekin konbinatua, ile apainketak presentzia berezi bat ematen dio neskari, eta horrek ia-ia jeloskortu egin du Sera. Neskak keinu adiskidetsu bat egin dio, bera noiz agertuko zain balego bezala. Sera ez dago ohituta horren harrera beroetara inguru hauetan. Keinua adiskidetsu batez erantzun du, eta plastiko gorritz egindako eserlekuan hondoratu da.

Burrumba batek inguratzen du. Adineko jendea, baina gazte ugari ere bai. Hizketan ari dira, kanta-marmarrean, eta aurpegi ezagunen bila, agurtzeko.

Orduan musika hasi da eta mundu guztia txaloka eta abesten jarri da. Alboko sarreratik bertsolari txapelketa honetako sei finalistak banakako ilaran azaldu dira agertoki gainean. Azkena... Ibon da! Serak barre egin du. Zergatik ez zion esan, «Iana» zeukala esan beharrean? Gainerako lehiakideekin batera, Ibon oholtzara igo da eta herabe hartu du esku-zarta. Badirudi sei lagunek ez dutela arropa aldatzeko betarik izan. Bi emakumezkoek ez zitzairen egokia irudituko soineko politen bat janztea, eta gizona etxean utzi dituzte, antza, beren alkandora eta jaka dotoreak. Ibonek pana marroizko galtzak eta marinel jertse urdin bat daramatza soinean.

Aurkezleak Ibonen izena esan duenean, Seraren alboko neskak askoz txalo gehiago egin du besteen kasuan baino. Sera begira geratu zaio, galdezka bezala. Hark irribarre egin du.

-Anaia gaztea dut.

Imajinatu behar zuen, noski. Eserleku hutsa, ongietorri beroa, begi gaztaintara argi berdinak. Serak baiezkoa egin du buruaz, alai, eta eskua luzatu du.

-Sera.

-*Qué será, será!* Ni Aran naiz.

Haren aurpegia argitu egin da irribarre egitean. Aranek bazekiela Sera agertuko zela, esan dio. Eta bere gonbidatuak gertatuko dena ulertu dezan ahaleginduko dela. Serak baiezko keinua egin dio, esker onez. Iboni begiratu dio. Hortxe dago, eskuak patriketan. Agertokiko gazteena da, alde handiz. Anai-arrebak begi berdinak dituzte, larruazal kolore bera.

-Ibonek ez zidan esan bertsolaria zenik.

-Gauza asko gordetzen ditu Ibonek -erantzun du Aranek-. Orain arte ez da lehiakide arriskutsua izan. Baina ez zaio talenturik falta, finaleraino iritsi da eta.

Aurkezleak arreta eskatu du lehen saioari hasiera emateko. Lehiakideek rolak antzetzu behar dituzte, binaka. Serari «Zein da nire lanbidea?» eta inprobisaziozko beste teleaio batzuk etorri zaizkio gogora, baina txundituta geratu da bertsolaria kantuan hasi direnean. Ez zaie bakarrik gai bat ematen, neurria ere bai. Segundo gutxi batzuk besterik ez dute istorio bat asmatu, doakion doinu bat pentsatu, neurria eta errimara doitzen diren hitzak aurkitu eta kantatzeko. Musikaririk gabe, inolako aurre prestakuntzarik gabe.

Noizean behin, Aranek ingelesezko hitz gako batzuk zirriborratzen ditu ekarri duen koadernoan, eta Serari erakutsi. Sistema horri esker, Serak ulertu du bertsolariek umorez eta adorez kantatzen dutela ematen zaien edozein gairen inguruan. Lehiakide batek zutik jarri ditu ikusleak telefono dei bat irudikatzean, zeinean Donald Trump saiatzen baita Hillary Clintonen inguruan gizalegez mintzaten, baina ezin eutsi eta behin eta berriro deitzen baitio Hillajajajari. Beste batek zeure kabuz oportetan joatearen tristezia ederraz kantatu du. Lehiakideei puntuak ematen zaizkie edukiaren kalitatearen, hizkuntza aberastasunaren eta abesteko gaitasunaren arabera.

Arani hatzak inurritzen ari zaizkio hainbeste zirriborratearekin, baina Serak oso estimatzen du, hartara esaten ari direna jarraitu dezakeelako. Ibonek di-da planteatu du bi zerbitzari edaria agortu dela konturatu diren eszena bat. Ikusleak barrez lehertu dira Ibonek kantatu duenean seguru dagoela azaroaren 31n etortzeko esan ziola hornitzaileari.

Atsedendian epaileek erabaki behar dute zein izango diren bi finalistak. Serak galdetu du Ibonek aukerarik ba ote duen. Aranez soinak jaso ditu. Musugorrituta dago, kopeta xukatzen ari da. Baietz espero duela, esan du, hala espero duela.

Serak ere bai.

Epaileek aurkezleari entregatu diote erabakia. Aurkezleak papera irakurri du, harridura keinu bat agertu du eta mikrofonorantz abiatu da. Odei da lehen finalista. Aranez esan du ez dela harritzen, bere faborittoa zela. Bigarren finalista bai, sorpresa izan da. Aran garrasika hasi da; Sera, txaloka. Finalean sartu da begiak bere arrebaenak bezain politak dituen mutiko gaztea. Zergatik oso seguru ez egon arren, besarkada handi bat eman nahiko liokeen mutiko gaztea.

Azken egitekoa ez da txantxetakoa. Orain biok kantatu behar duten istorioan, senar-emazte batzuk amildegi baten ertzean dabilta, txango batean. Bi bertsolariek azaldu behar dituzte bikotearen sentimenduak, bai istorioari jarraipena eman ere. Hamar lerroko hiru bertsotan esan behar dute, sei eta zazpi silaben artean txandakatuz, eta bi lerroz behin errimatu egin behar du.

Odei kanpora eraman dute buruz burukorako, Ibonek kantatuko duena entzun ez dezan. Mutila bakar-bakarrik dago agertokian. Eskuak patriketan, burua tente, kontzentratuta. Isiltasuna hedatu da. Serak arnasari eutsi dio, bai Aranez ere. Nebari begiratzera ez da ausartzen, eta aulkiaren azpiko programa-liburuxkari so dago. Ile-xerlo meheak belaunetaraino iristen zaizkio.

Kantuan hasi da Ibon. Apur bat zalantzata du ahotsa. Serak bere albokoaren oihu itoa aditu du. Gainerako ikusleen erreazioagatik, konturatu da Ibon ezohiko zerbait egiten ari dela, batzuk marmarrean aditu ditu. Lehenbiziko bertsoaren ondoren txalo beroak hartu ditu. Segundo batzuk eman dizkio Ibonek bere buruari, pentsatzeko. Serak ezkerretara begiratu du. Aranez bira egin du eta esan dio:

-Gure gurasoez ari da. Dibortziatuta daude. Aitak egin zuenagatik.

Serak baiezkua egin du. Zer beste egin dezake? Ibonek aurrera jarraitu du. Inguruan dauden pertsona batzuek badakite, antza, Aran haren arreba dela, ez baitiote begirik kentzen. Haren begiek liburuxkan iltzatuta jarraitzen dute. Ibonen ahotsetik atera daiteke istorioak eragina duela harengan, baina hotz jarraitu du. Segundo batzuetan erabateko isiltasuna egin da, baina gero bigarren ahapaldiak lehenbizikoak baino are txalo gehiago ekarri ditu, Ibon azken bertsorako prestatu bitartean. Aranez ez du hitz egiteko gogorik, baina Sera begira dauka, galderez beteta.

-Ama ez da bizi. Bere buruaz... -Aranez keinu bat egin du, baina gero ematen du nahiago lukeela egin ez balu.

Orduan Ibon osterera hurbildu da mikrofonora. Txistua irentsi du. Lehen lerroa hasi du. Sera zenbatzen ari da. Zazpi silaba, zehazki. Gero seiko lerro bat. Gero berriz... Iboni lotu egin zaio mihia. Gero ikusleei begiratu die estreinako aldiz. Beldurra garbi agertu da haren begietan. Ezin du jarraitu. Burua erortzen utzi du. Ikusleei «Ooo» leun bat itzuri zaie. Ibonek sakon hartu du arnasa, eta mikrofonoa eskuetan estutu du, jarraitzeko prest. Ahoa zabaldu du. Baina handik ez da hotsik irten. Begira jarri da Seraren, ez, arrebaren norabidean. Gero indarrez itxi ditu begiak. Pauso bat egin du atzerantz, mikrofonotik urrun. Aurkezleari keinu triste bat egin dio, bere aulkian eseri da eta eskuez estali ditu begiak. Segundo pare batez ez da hotsik aditu, eta gero esku-zarta itzel batek hartu du kiroldegia. Besteak bezalaxe, Sera zutik jarri eta txalo joka hasi da, gero eta sutuago. Ibonek ez du finala irabaziko, baina gutxitan gertatzen dira gaurkoa baino saio zirrarragarriagoak.

Orduan begiratu dio alboko neskari. Bere aulkian eserita jarraitzen du, ez da zutitzera ausartzen, eta ezintasunezko keinu batez eskuinera so dago. Serak zutitzen lagundu dio. Jendea hari begira dago. Serak besoaz inguratu du neska.

3.

Autora sartu dira. Ibonek esan dio zuzen jarraitzeko, gero ezkerrera jo eta herria atzean uzten duen errepidea hartzeko. Bide seinale batek dio 15 kilometrora amaitzen dela errepidea.

-Natur erreserba bat dago beste muturrean. Harantz joango gara -esan du.

Hasieran, erreka bati jarraitzen dio errepideak, haran batean barrena, baina, auzo txiki batera iristean, mendietan gora egiten du. Errepidea estuagoa eta pikoagoa da hemen. Bustita dago, eta asfaltoa, hostoz estalita. Serak ez du azkarregi gidatu nahi hainbeste bihurtune artean, baina azeleragailua sakatu behar du abiadurarik ez galtzeko. Eguzkiak zuhaitzen artetik distirutzen du; beraz, emakumeak ikuspegi argia izaten kontzentratu behar du. Ibonek ere ez du txintik atera. Bila ari da bere motxilan.

Minutu batzuk eman dituzte sigi-saga mendian gora. Landen ikuspegi ederra agertzen zaie tarteka. Mendi-txirindulari batzuk goraka ari dira garapen txikian, errepidean ezker-eskuin eginez. Serak abiadura moteldu eta oina azeleragailutik altxatu du lehen martxa sartzeko. Errepidea zabaldu arte ez du izan txirindulariak aurreratzeko adorerik.

-Bart luzaro geratu al zinen? -galdetu du.

Ibonek burua astindu du.

-Ez. Odei zoriondu behar nuen, noski, eta antolakuntzakoekin eta beste batzuekin jardun nuen pixka batean, baina segituan joan ginen. Tira, ongi egon zen finalean egotea, jakina. Baina ez nuen horrela bukatzea nahi.

Bide seinaleen arabera, bi kilometro errepide besterik ez da geratzen. Bihurgune batean zelaitxo ireki bat azaldu da. Ibonek hatzaz erakutsi du, eta bertan aparkatu dezakeela esan dio Serari. Inguruan dabilzan bakarrak dira, eguraldi bikaina eginagatik ere. Serak goroldio gainean aparkatu eta motorra itzali du. Orduan jabetu da Ibonek apenas duela bizarrik. Bixar xerlo bakan batzuk behe barailan, besterik ez. Gehiago dela dirudi ilea beltza delako. Autotik irten dira. Porlanezko mahaiak daude piknik egiteko, eta bi zakarrontzi. Ibonek motxilatik ateratako plastikozko poltsa bat bota du zakarrontzi batera.

Errepidearen beste aldean, aldapa igotzen erraza da. Baina Sera zurrunduta dago eserita egotetik, eta kostata samar dabil. Ibon urrats batzuk aurrerago doa. Handik pixka batera, goialdea iritsi dute. Sera arnasestuka ari da, baina hatsa etorri ahala jabetu da inguruko isiltasun erabatekoaz. Ez da aditzen ez behi zintzarririk ez txori kantarik. Berdetasunetik gailentzen den harri zabal bat aurkitu du Ibonek eta bertan eseri da. Handik mendien ikusmira liluragarria dute aurrean. Sera ondoan eseri zaio. Zenbait mendi gailur dituzte aurrean. Haitz grisak kono berde-marroien estalkiak balira bezala. Ikuspegia barneratu dute, astiro. Zerbait dabil hegan. Sairen bat, edo agian belatzen bat? Zirkulu zabalak egiten ari da hegoak inarrosi gabe.

-Hemen jada ez da inor bizi -esan du Ibonek-. Errepidea mendilerro honen atzean bukatzen da.

-Beraz, zuretzat munduaren amaiera ez da itsasoa, lurra baizik. -Serak irribarre egin du.

Ibonek ez du erantzun.

-Herriko jendea sarri etortzen da perretxikotara, edo masusta bila. Kanpotarrak ez dira etortzen, errepidea ezerezaren erdian bukatzen delako. Beraz, geure mundutxoa daukagu hemen.

-Bertan jaioa al zara?

-Bai. Aita eta ama bezala. Eskualde hau gure odola da.

-Ulertzen dut horrenbeste maitatzea. Hain da ederra. -Zinez ari da Sera.

-Horixe dugu zigorra -esan du Ibonek-. Hau hain da zoragarria, ez zaigu bururatzen beste inon bizitzea. Eta hemen geratzen gara. Paradisuan harrapatuta. Eta hartara, paradisia izateari uzten dio.

Serak baiezkoa egin du, ulertzen du. Ibonek motxilatik botila bat sagardo atera eta zuzenean edan du bertatik; gero Serari eskaini dio. Hark ez daki edan behar duen, itzuleran pasatu beharreko bihurgune guztiak gogoan.

Ibonek zalantza sumatu dio.

-Pixka batek ez dizu kalterik egingo. Ia ez dauka alkoholik.

Serak tragoxka batzuk hartu ditu. Oso ona dago.

-Lasterketak egiten zituzten hemen. Lehenik botila bat sagardo bana edaten zuten hemen goian, eta gero norgehiagoka aritzen ziren haranera nor jaitsi lasterren beren auto zaharkituetan, Opel Kadett, Taunus eta antzekoetan. Nire aita askotan lehiatzen zen.

-Ez zen ezbeharrik gertatzen?

Ibonek sorbaldak jaso ditu.

-Orain ez du inork egiten. Jarraituko al dugu pixka batean?

Eskuin alde seinalatu du. Ez dirudi igoera malkartsua denik, eta zuhaitzen lerrotik gora iritsiko lirateke. Sera ados egon da. Zutitu dira eta bideari ekin diote.

-Aitarekin bakarrik bizi al zara?

-Halaxe da.

Serak jakin-minezko begirada bat zuzendu dio, gehiago espero du. Ibon ezbaian geratu da pixka batean.

-Aran Donostian bizi da, bere kabuz. Sarritan joaten naiz hara. Baina ezin dut aita bakarrik utzi gauez; beraz, beti itzultzen naiz lotara.

-Zer du, bada? -Bide estua da, harrizko mailak daude gora egiteko. Ibon doa aurrena. Arnasa guztiaren premia izango dute igoera honetarako. Serak badaki horrek isilik egoteko aukera ematen diola Iboni. Eta ongi iruditzen zaio.

Gailurra zapaldu duten arte itxaron du Ibonek.

-Pixkanaka hasi zen. Gero eta gutxiago irteten zen, batez ere ama joan zitzaigunetik. Isiltasuna nagusitu zen. Etxean, baina haren baitan ere bai. Ez zuen gehiago sozializatzen, eta bere eskolean sartu zen.

-Zergatik, baina? Eta nolatan hasi zen hura? -galdetu dio Serak.

Ibonek ingurura begiratu du. Errepidea berrogeita hamar metro beherago dago, eta handik zuzen jaisten da. Zelai irekiak dira hauek, eta aldapak, pikoak. Ibonek harantz zuzendu du hatza.

-Hor hasi zen dena.

Ordu erdi bat behar izan dute «horra» iristeko. Bide luzeari lotu zaizkio, arriskutsuegia delako zuzenean jaistea. Bidezidorrak nahiko labainkor daude bestela ere. Zuhaitzi bat zeharkatu dute, baina orain bidea garbi dago berriz. Serak nahi lukeen baino ozenago hitz egin behar dute, erreka baten zaratagatik. Uraren gaineko zementuzko zubitxo batean bukatzen da bidezidorra. Ibon harantz abiatu da, eta bertan gelditu da. Serak ingurura begiratu du. Harana mendiz inguratuta dago, katilu itzel bat balitz bezala. Errepideak sigi-saga egiten du ehun metro gorago.

Ume garaitik lagunak zirela esan zion Ibonek behera bidean. Bere aita eta Xabier. Elkarrekin jolasten ziren kalean, elkarrekin joaten ziren eskolara eta elkarrekin etxeratzen ziren arratsaldean, elkarren ondoan bizi zirelako. Jostailu berdinak zeuzkaten, motozikleta berdina erosi zuten, musika eta neskak trukutzen zituzten, eta auto berean sartzen ziren mendi lasterketak irabazteko.

-Eta gero biek izan zuten familia? -galdetu du Serak zubiko harmaila batean eseri bitartean.

-Biak ezkondu ziren herriko neska banarekin. Han ez zegoen emakume askorik, eta afera gorabeheratsuen halako nahasketa bat izan zen. Baina ongi atera zen. Aitak lantegi mekaniko bat zeukan, eta bertan konpontzen zituen autoak, bizikletak eta motozikletak. Eta lantxo bat zeukan alboan mezulari gisa, paketeak hiriburura eramaten eta abar. Amak okindegian egiten zuen lan, eta jendeak hara jotzen zuen kafe bat hartzera eta gozopilak jatera. Umetan, Aran eta biok askotan joaten ginen hara tripa betetzera. Xabierren emazteak ere bertan egiten zuen lan, baina hura eta gure ama ez ziren beren senarrak bezain ongi moldatzen.

-Eta horrek amaitu zuen adiskidetasuna?

Ibonek burua astindu du.

-Xabier politikan sartu zen. Eta ez zen herriko jendearen gustukoa izan. Partido Popularrean sartu zen. Francoren tropeletik zuzenean, bertakoek ziotenez. Gure herria oso harro zegoen bere euskal ondareaz, noski, eta edozein frankistak izango lituzke arazoak hemen. Xabierren familia, ordea, sinetsita zegoen estatu batu bakarra izango zela onena jendearentzat. Eta Xabier azkar bihurtu zen muntako politikari eskualdean.

Ibonek arrautzopil ogitarteko bat atera du motxilatik, eta Serari eskaini dio. Hark uko egin dio.

-Hala ere, aita eta Xabier adiskideak izaten moldatu ziren -jarraitu du Ibonek-. Gogorra zen, baina aitak zioen gai zirela beren adiskidetasuna politikatik bereizten. Politikaz mintzatu ez, horixe egiten zuten. Mendira joaten jarraitu zuten, oinez edo autoz. Aitak auto bat konpontzen zuenean, goraino igo eta itzuli egiten zen, proba moduan.

Ibonek kosk egin dio ogitartekoari, eta isilik geratu da tarte batean.

Serak ingurura begiratu du, mutilari denbora ematearren. Auto bat doa beheko errepidetik, eta mantsotzen aditu dute martxa aldatu duenean. Ibon zutitu eta zubiaren beste muturrera joan da. Alde hartako harmailak erakutsi dizkio. Puskatuta daude, barra indargarriak agerian daude porlaneko pitzaduretan. Oinari zementu puska bat falta zaio.

-Xabierrek hemen galdu zuen bizia. Halako batean, laurogeita hamarreko hamarkadaren amaieran, hura eta aita mendian behera jaitsi ziren autoz, bata bestearen atzean. Xabier errepidetik irten zen, eta amildegira erori. Haren autoa zubi honen oinean gelditu zen. Hamaika zilipurdi egin ondoren, noski.

Sera so geratu da. Jabetu da talkak ez zituela bakarrik harmailak kaltetu; egitura osoa dago erasanda.

-Eta zure aita...?

-Esan zuen ezin izan zuela ezer egin. Harrigarria zela, baina Xabier gune zuzen batean irten zela errepidetik, eta amildegian behera egin.

-Eta ezin izan zion lagundu?

Ibonek ezezeko keinua egin du.

-Ezetz esan zuen. Baina gero ETAk komunikatu bat kaleratu zuen esanez Xabier hiltzea lortu zutela. Horrek zalantzak piztu zituen.

-Ikaragarria izango zen zure aitarentzat. Orduan, susmagarri jo al zuten?

-Ez dakit jendeak zer uste zuen. Baina aitak zioen istripu hutsa izan zela. Hala ere, haren ondoren dena aldatu zen. Ezagun batzuk hasi ziren aita saihesten, bezeroak galdu zituen; amak ezin zuen jarraitu Xabierren emaztearekin lan egiten, eta alde egin behar izan zuen. Gauzak larri jarri ziren etxean. Diru gutxiago, tentsio gehiago. Gurasoen artean ere tentsioak sortu ziren. Gero eta maizago aditzen genituen eztabaidan. Gauean Aran eta biok elkar besarkatuta egoten ginen, baina alferrikakoa zen. Aranek otoitz egiten zuen maitasun eskean, baina debaldetan. Aita gero eta gutxiago irteten zen etxetik, lantegian lan gutxiago zeukalako. Mezularitza ere utzi egin zuen, baina ez genekien zergatik. Eta jada ez zen etxetik irteten. Pixkanaka, jasanezin bihurtu zen etxean. Hasieran, gu oheratu eta gerorako uzten zituzten sesioak, baina amaieran ezin izaten zuten horrenbeste itxaron. Sumendia lehertzeko zorian zegoen.

-Eta azkenean lehertu egin zen?

-Azkenean amak aiztoa lepoan jarri zion aitari. Ia hitzez hitz. Gau batean haren aurrean jarri zen, eskuan zerbait zeramala. Dagoeneko ahaztu zait aizto bat ote zen, baina sukalde tresnaren bat zeukan eskuan. Aran eta biok ate bilduaren atzean geunden, baina haiek ez ziren konturatu ere egin. Amak eraso egingo zion aitak argi eta garbi azaltzen ez bazuen zer gertatu zen amaren bizitza hain errotik aldarazi zuen egun hartan. Azkenean, aitak aitortu egin zuen.

-Ez zela istripu bat izan?

Ibonek baiezko mutua egin du. Motxila bizkarreratu du. Bidezidor beretik itzuli dira. Geroxeago atzean utzi dute erreka eta berriz zeharkatu dute basotxo. Narotasuna zabaltzen da hemen. Zuhaitzen artean tarte handiak daude, eta lurrak tapiz marroi handi bat dirudi. Serak orbela ostikatu du. Orain gora egin behar dute atzera berriz, eta ibilera mantsotzen saiatu da Sera, gaiak hizketan jarraitu ahal izateko. Ibonen aurrean jarri da, atzerantz ibiltzen. Mutilak mezua ulertu du. Gelditu egin dira.

-Aitortu zuen bere mezulari lana ez zela hain tolesgabea. Aita harremanetan zegoen ETArekin, herriko gorabeheren berri ematen zien eta gauzak garraiatzen zizkien. Baliteke inguruko mendietan armak ezkutatu izana. Horretarako aukera asko daude hemen. Dena den, halako batean Xabier exekutatzeko agindua hartu zuen. Gau hartan esan zigun ez zela ausartu ezetz esaten, eta asteak eman zituela zer egin jakin gabe. Ezin zuen bere adiskidea tirokatu. Hala ere, Xabier bezalako euskaldunen aurkako politikariak hil beharra zegoela uste zuen, eta ezin zion uko egin ETArengandik zetorren agindu bati. Azkenean erabaki bat hartu zuen.

Xabierri eskatu zion mendian berarekin elkartzeko, eta desafio egin zion zein lasterrago jaitsi. Gune luze horretan errepidea nahiko zabala da bi auto hartzeko. Aitak autoa Xabierrenaren ondoan jarri eta errepidetik kanpo bultzatu zuen.

Serak zuhaitz bat aurkitu du, hartan bermatzeko. Aurrean du Ibon, oinekin orbelean zirkuluak eratzten.

-Aita autora jaitsi zen, aztarnak ezabatu eta bere bertsioa sinesgarri egiteko. Gero laguntza eske abiatu zen. Uste zuen hartara libratu ahal izango zela. Bere istorioari eutsi zion, baita jendea bere azalpenak zalantzan jartzen hasi zenean ere. Baina oreka galduz joan zen. Bi urte eman zituen ezer esan gabe, amak hitz egitera behartu zuen arte. Gau hartan.

-Eta zure ama ezin izan zen informazio horrekin bizi? Bart kantuan aipatu zenuen amildegi hori...

Ibonek baiezkoa egin du, astiro.

-Indarkeria estali nahi duen norbaitek etsai ikusezin bat sortzen du, garaitu ezin dezakeena. Harrez geroztik, aita benetan existitu gabe bizi izan da. Ezin da jende artean bizi, baina bakarrik ere ezin da egon. Bere buruaren gaineko kontrol oro galdu du.

Ibonek atzeko eserlekuan utzi du motxila. Serak autoa abiarazi du. Gero bigarren martxa sartu du berehala, eta hortik aurrera autoak bere kabuz egin du mendi jaitsiera. Xabier errepidetik irten zen gunean aluminiozko babes-hesi bat dago, zuri-gorritz margotua.